OIARTZUNGO
UDALA

OIARTZUNGO
UDALA

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, OIARTZUNGO ELORSORO KIROLDEGIRAKO, MADALENSORO PILOTALEKURAKO ETA UDAKO IGERILEKUETARAKO ENERGIA ELEKTRIKOAREN HORNIDURA ETA ELORSORO KIROLDEGIRAKO GAS NATURALAREN HORNIDURA KONTRATATZEKO

OIARTZUNGO UDALA

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, OIARTZUNGO UDALEKO ELORSORO KIROLDEGIRAKO, MADALENSORO PILOTALEKURAKO ETA UDAKO IGERILEKURAKO ENERGIA ELEKTRIKOAREN ETA ELORSORO KIROLDEGIRAKO GAS NATURALAREN HORNIDURA KONTRATURAKO.

1. KONTRATUAREN XEDEA

1. % 100ean energia berriztagarria, Elorsoro kiroldegiko, Madalensoro pilotalekuko eta udako igerilekuko energia elektrikoko hiru kontratu eta Elorsoro kiroldegiko gas naturaleko kontratu baten beharrak hornitzeko.

Baldintza-agiri honen xedea da Baldintza Administratiboen Agiriarekin batera, energia elektrikoaren eta gas naturalaren horniduraren kontratazioa arautuko duten baldintza teknikoak zehaztea, **OIARTZUNGO Udala**ren titulartasunekoak diren eta eranskinetan adierazten diren konexio elektrikoko hiru puntuen eskaerari erantzuteko, pertsonentzat zein herrientzat berriztagarriak eta seguruak diren energia-ekoizpeneko iturrien bitartez. Era berean, energia elektrikoaren hornidura kudeatzeko kontratatu nahi den laguntza-zerbitzuaren ezaugarriak eta zehaztapenak xedatzen dira.

Funts publikoek pertsonen segurtasunerako eta osasunerako mehatxu izan daitezkeen produktu eta/edo zerbitzuetan egiten duten gastuarekiko instituzioek erakutsi behar duten erantzukizunaren barruan kokatzen da kontratuaren helburua, eta Europar Batasunak sustatzen duen iraunkortasun sozialerako eta energia berriztagarrien kontsumoa sustatzeko politikaren barruan.

Nazio Batuen klima-aldaketaren adituen taldearen (IPCC) txostenek eta Parisko Klimari buruzko Goi-bileraren (COP21) ondorioek baieztatzen dute gizakia aurrekaririk gabeko berotze global azkarra eragiten ari dela, eta horren ondorioak oso kaltegarriak izan daitezkeela bizitzarentzat. Batez besteko tenperaturak industria aurreko aroan zeuden mailatik bi gradu zentigradutik gora igotzen ari dira. Bi mailetako muga ez gainditzeko probabilitatea, funtsean, atmosferan berotegi-efektuko gasen kontzentrazioak gelditu eta egonkortzea lortzearen mende dago, eta, horretarako, emisioak nabarmen murriztu behar dira.

BEGen (berotegi-efektuko gasen) emisioak gaur egungo energia-sistemari zor zaizkio batez ere, garraio-sektorearekin batera, azken hori erregai fosilak erretzean oinarritzen baita.

Arreta Euskal Herriko egoeran jarrita, eta energia primarioaren auto hornikuntza-tasa aztertuta, datuak kezkagarriak dira bai EAErentzat, zein Nafarroarentzat. Energia-horniduraraako kanpomendekotasun absolutu horrek, gainera, energia fosiletara bideratuta dagoenez, kostu handia dakar BPGrekiko.

Ondorioz, hemen ez bezala, gure inguruan dagoeneko abian jartzen ari dira "trantsizio energetikoa" eta energia-iturri berriztagarrien ezarpen progresiboa.

Horregatik guztiagatik, egungo sistema elektrikoak hornidura ziurtatzeko potentzia nahikoa duten ekoizpen-iturri dituenez, erregai fosiletara eta energia nuklearrera nahitaez jo behar izan gabe, eta, gainera, merkatu elektrikoan esku hartzen duten operadore ekonomikoentzat iturri guztiz eskuragarriak direnez, kontratazio publikoan iturri kutsatzaileak ez onartzea ez da diskriminatzailea, eta, beraz, ez dago EBren Tratatuaren barne-merkatuaren oinarrizko printzipioen aurka, EBko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak defendatzen duena jarraituz.

Izan ere, Udal honek bere gain hartzen du konpromiso hori, eta, ondorioz, onartzen du kontratazio publikoa ingurumen- eta energia-politikan esku hartzeko tresna dela, eta kontratu hau gauzatzeko baldintza berezi gisa ezartzen du (Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen II. kapituluaren 17. artikulua) **enpresa esleipendunak hornitzen duen elektrizitatearen % 100 iturri berriztagarrietatik sortu behar dela.**

2. Laguntza tekniko pertsonalizatua eta energia aurrezteko eta eraginkortasun energetikorako prestakuntza udal-jardunean.

Argindarraren eta gasaren merkatuaren dinamismoa eta konplexutasuna kontuan hartuta, eta elektrizitate- eta gas-fakturaren prezioaren zati arautuari eragiten dioten arau-aldaketak gehituta, beharrezkotzat jotzen da **Udalak laguntza eta aholkularitza pertsonalizatua eta hurbila izatea, kontratuaren esleipendun merkaturatzaileak informazio zuzena eta eguneratua emanda**. Lizitazio honek udalerriko hornidurarako hiru puntu baino ez baditu ere, garrantzitsutzat jotzen da teknikariek zein erakundearen ordezkariek, sektore horri, haren funtzionamenduari eta efizientzia energetikoko neurriei buruzko prestakuntza nahikoa eguneratua izatea; izan ere, energia-aurrezpena eta aurrezpen ekonomikoa oinarri hartuta, udal instalazio eta zerbitzuen portaera energetikoa lortzeko ekintzak eta neurriak hartzeko erreferentzia izan daitezke.

Lizitazio honen bidez hobetu nahi den alderdietako bat, konpainia merkaturatzaileek hainbat puntutan emandako laguntza da, hala nola intzidentzietan, fakturazioan, hornidura berrien aldetan (aldi baterakoak eta/edo definitiboak), bai eta fakturazioari, kontsumoei, horniduraren kalitateagatiko erreklamazioei eta abarri buruzko informazioa emateko planean ere. Udalak garrantzi handia ematen die alderdi horiei, eta, beraz, garrantzitsua izango da konpainia merkaturatzaileek laguntza horretan jarduteko protokolo bat aurkeztea (koordinatzaile edo kontaktu bat egotea, kudeaketak egiteko epeak, eta abar).

Era berean, gizartearen eskaria ikusirik, herritarrek gai horri buruzko informazioa eta prestakuntza jasotzea interesgarritzat jotzen da, alegia, guztiak inplikatzea kontsumo arduratsuko ohituren praktika indibidual eta kolektiboan, baita energia-arloan ere.

Bestalde, energiaren merkatu liberalizatuari dagokionez, Ministerioak arautzen duen elektrizitatearen aurreproiektuari esleitutako kostuak daude. Ministerio horrek energiaren arloan eskumena du. Araututako kostuak dira, eta horien artean "bidesaria" nabarmentzen da kontratatutako potentziaren terminoagatik.

Beraz, eta Udalak orain artean hainbat doikuntza egin baditu ere kontratatutako horniduren tarifetan eta potentziatan, aurrekontua arrazionalizatzeko ekitaldi batean, faktura elektrikoa ekonomikoki merketu nahi du, eta, horretarako, berehalako eragina duen neurri bat da, hain zuzen ere, erregistro-puntu bakoitzerako kontratatutako potentziak benetako kontsumorako egokia den optimora egokitzea.

Era berean, sortutako gehiegizko energia erreaktiboa ezabatzeagatik aurreztea ere esku hartzeko beste esparru bat da. Udalak gainkostu hori murriztu nahi du, eta horretarako, fakturen osagai hori ezabatzearen ondoriozko aurrezpen-analisia eskatuko du. Esleipen duna ez da izango gehiegizko energia erreaktiboaren ezabaketa horren erantzule, ezta ezabatze horen exekuzio fisikoaren arduradun ere, baina Udalak eskaini diezazkiokeen datuetatik abiatuta kuantifikazio bat eskatuko zaio.

OIARTZUNGO UDALA

2. HORNIDURAREN EGUNGO EZAUGARRIAK.

I. eranskinean, energia elektrikoaren hornidura-puntuen zerrenda jasotzen da, sarbide-tarifaren arabera ordenatuta, lizitazioaren xede direnak, eta Hornidura Puntuaren Kode Unibertsala (aurrerantzean, CUPS). Horietako bakoitzerako **2022. urteko kontsumo erreala adierazten da, eurotan eta kWh-tan**, eskaintzak modu objektiboan eta gardenean baloratzeko oinarri gisa balioko duena.

Kontsumo horietan eragina izan dezakete klimatologiak, hornidura-puntuen jarduerak, OIARTZUNGO Udalak garatutako energia-eraginkortasuneko jarduerak eta beste faktore batzuek. Beraz, OIARTZUNgo Udalak ez du gutxieneko kontsumo bolumen bat bermatzeko konpromisorik hartzen (ez eta fakturazio jakin batena ere).

Maximetroei eta energia erreaktiboaren neurriei buruzko informazioa enpresa lizitatzaileen eskura dago, MKBNk berak merkaturatzaileen eskura jartzen dituen CUPSetatik abiatuta. Horrela, CUPSak aipatuta, lizitaziora aurkezten den enpresak datu horiek lortzeko gutxieneko informazioa du.

II. eranskinean gasaren hornidura-puntuaren datua jasotzen da**. 2022. urteko kontsumo erreala adierazten da, eurotan eta kWh-tan**, lizitatutako gas-hornidura bakarraren eskaintzak modu objektiboan eta gardenean baloratzeko oinarri izango dena. Halaber, "gas finkoa" terminoa (euro/eguneko) eta "gas energia" terminoa (euro/kWh) ezartzen dira.

3. ESKAINTZEK IZAN BEHAR DITUZTEN EZAUGARRIAK ETA EDUKIAK

1. Zenbatetsitako kontsumoak

I. eta II. eranskinetan adierazitako kontsumoak merkaturatzaile lizitatzaileak bere eskaintzarik onena kalkula dezan baino ez dira ematen; izan ere, horniduren kontsumoak antzekoak izango direla uste da kontratua indarrean dagoen bitartean, baina horrek ez du esan nahi Administrazioak kWh horiek guztiak kontsumitu behar dituenik lotutako hornidura-puntu eta loteetan. Beraz, urteko kontsumo-bolumenean eta karga-kurban gerta daitekeen edozein desbideratze **ezin izango da inola ere erreklamazio-arrazoi izan**.

Kontratuak, OIARTZUNGO Udala titularra den **I. eranskinean** adierazitako konexio elektrikoko hiru puntuen eta **II. eranskinean** adierazitako gas-konexioko puntuaren eskaria asebeteko du.

2. Laguntza (hornidura elektrikoaren lizitatzaileei bakarrik eragiten die)

Enpresa merkaturatzaileek OIARTZUNGO Udalari eman diezaioketen laguntza teknikoa eta asistentzia, garrantzi handiko puntua da. Lizitazio honek honako alderdi hauek hobetu nahi ditu:

- Konpainia merkaturatzaileetatik jasotako laguntza hainbat puntutan, hala nola intzidentziaren eta fakturazioaren arloan.

- Fakturazioari, kontsumoei, hornidura-kontsumoari eta abarri buruzko informazioa emateko plana. Konpainia merkaturatzaileak laguntza horretan jarduteko protokolo bat aurkeztea.

Era berean, gizarteak eskatzen du herritarrek gai horri buruzko informazioa eta prestakuntza jasotzea, guztiak inplikatzeko kontsumo arduratsuko ohituren praktika indibidual eta kolektiboan, baita energiaren arloan ere.

Lizitatzaileek beren eskaintzan zehaztuko dituzte Udalari eskainiko zaion bezeroaren arretarako zerbitzuaren ezaugarriak eta bitartekoak, ahalik eta xehetasun handienarekin.

Esleipendunak pertsona bakar bat izendatuko du lizitazioaren xede den hitzarmena kudeatzeko arduradun nagusi gisa. Era berean, merkaturatzaileak izendatu beharko du zerbitzuaren koordinazio operatiboa egingo duen pertsona. Izendapen horiek eskaintza teknikoan adierazi beharko dira.

Laguntza teknikoa zuzenekoa, hurbilekoa eta euskaraz eta gaztelaniaz izango da, eta aholkularitza emango die udal zerbitzuei, gerta daitezkeen gorabeherei (hornidura eteteak, etab.) eta fakturazio gertaerei dagokienez.

Esleipendunarekin egingo diren bilerak eskariaren araberakoak izango dira, Udalak duen beharraren arabera. Nolanahi ere, bilera-plan baten ekarpena baloratuko da.

Ez da onartuko bezeroaren arretarako telefono-zenbaki batera modu masiboan "call center" edo web orri generiko batera bideratzean oinarritzen den eskaintzarik. Kasu horretan, eskaintza lizitaziotik kanpo geratuko da.

Merkatu elektrikoan etorkizuneko prezioen gorabeheren komunikazioa baloratuko da, Udalari kontratuaren gastu zenbatetsiaren aurrekontu-programazio egokitua egiteko datuak eta informazioa emateko. Era berean, beharrezkotzat jotzen da esleipendunak potentzia-terminoko kontratuak egokitzeko egin behar duen prozesuari buruzko informazio zehatza izatea.

Azkenik, hobekuntza baloragarritzat jotzen da eraginkortasun energetikoari eta faktura elektrikoaren ulermenari buruzko prestakuntza-ikastaroak eskaintzea udal langileei, korporazioko kideei eta herritarrei.

Jarduketaren xehetasun-maila puntuatuko da.

3. Kontratatutako potentzien optimizazioa (hornidura elektrikoaren lizitatzaileei bakarrik eragiten die).

Enpresa lizitatzaileek eskatutako potentziak aztertzeko plan bat aurkeztu beharko dute, aldianaldian haiek optimizatzeko berrikuspen bat egin dadin.

Era berean, proposatutako egokitzapen hori burutzeko jarraitu beharreko prozedura zehaztuko da. Prozedura hori enpresa esleipendunak izapidetuko du, eta Udalak bakarrik hartuko ditu bere gain enpresa banatzailearekin kontratu-aldaketa hori egiteko ezarritako kostu arautuak.

Jarduketaren xehetasun-maila puntuatuko da.

4. Energia erreaktiboa konpentsatzeko plana (hornidura elektrikoaren lizitatzaileei bakarrik eragiten die).

Enpresa lizitatzaileek energia erreaktiboa aztertzeko plan bat aurkeztu beharko dute, aldian-aldian berrikuspen bat egin dadin, kontzeptu horrengatik zigorrak saihesteko.

Azterketan, murriztu beharreko zenbatekoa zehaztuko da, Udala egiten ari den jarduerak sortzen dituen balizko zigor ekonomikoak saihesteko.

Jarduketaren xehetasun-maila puntuatuko da.

5. Neurketa-ekipoak (hornidura elektrikoaren lizitatzaileei bakarrik eragiten die).

Esleipendunak bere gain hartuko du Udalaren ordezkaritza banatzailearen aurrean, dagozkion kudeaketa guztiak egiteko, neurketa-ekipoen eskaerari, instalazioari, mantentze-lanei, egiaztapenei, ikuskapenei eta balizko matxurei dagokienez. Udalak beretzat gordetzen du neurketa-ekipoa jabetzan erosi ahal izateko eskubidea, eta kasu honetan hornidura horren fakturazioan alokairua ordaintzetik salbuetsita geratzen da.

6. Horniduraren bermea eta kalitatea (hornidura elektrikoaren lizitatzaileei bakarrik eragiten die).

Esleipenduna izango da horniduraren arduraduna, arau hauetan araututakoaren arabera: Sektore Elektrikoari buruzko 24/2013 Legea; abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua, energia elektrikoko instalazioen garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta hornidura-jarduerak eta autorizatze-prozedura arautzen dituena; eta neurketa-puntuen Berrikuspen Bateratua onartzen duen Errege Dekretua edo horiek ordezten edo osatzen dituen beste edozein legeria. Erantzukizun hori halakoa izango da, bai merkaturatze-jarduerara mugatuta dagoenean, bai aipatutako araudian hala jasotzen denean. Ezin izango da enpresa banatzailearen eskumenei dagokien erantzukizunik egotzi.

Esleipendunak enpresa banatzailearen aurrean izapidetuko ditu Administrazioaren kontsumo-puntuei dagozkien kalitate-erreklamazioak, eta enpresa banatzaileak aplikatzen dituen deskontuak helaraziko dizkie fakturei, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Aldizkako txosten bat idatzi beharko da, gutxienez sei hilean behin (horniduraren kalitateari buruzko txostena). Txosten horretan, aldi horretarako etendura-denborak eta etenduren kopurua jasoko dira, eta eragingo zaizkien hornidura-puntuak, ordutegiak eta arrazoia adieraziko dira. Txostena entregatuko da dagokion aldizkako faktorearekin batera.

Jarduketaren xehetasun-maila puntuatuko da.

4. NAHITAEZKO ZERBITZU GEHIGARRIAK (hornidura elektrikoaren lizitatzaileei bakarrik eragiten die).

Kontratuaren esleipendunak honako betebehar hauek hartu beharko ditu bere gain, kostu gehigarririk gabe:

1) Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 44.1.k) artikuluan, erabiltzaileen eskubideen artean jasotzen da hornitzailea inolako kosturik gabe eta legez eta erregelamenduz ezarritako epeetan aldatzeko eskubidea.

Horren ondorioz, esleipendunaren betebeharra da egungo hornidura-zerbitzuaren baja kudeatzea eta lortzea, Udalarentzat inolako kosturik gabe. Prozedurak betetzen ez badira edo kontsumitzaileari zigorra ezartzen bazaio, enpresak gastu horiek Udalari jasanarazi ahal izango dizkio, inolako kostu erantsirik gabe.

Nolanahi ere, ulertzen da, 24/2013 Legean ezarritakoaren arabera, hornitzaile elektrikoa aldatzeak EZ duela inolako kosturik eragingo.

2) Enpresa banatzailearen aurrean izapidetuko ditu, arlo horretan Udalari laguntza emanez, kontsumitzaileari dagozkion hornidura-kalitateagatiko erreklamazioak, eta enpresa banatzaileak aplikatzen dituen deskontuak helaraziko ditu fakturetan, indarrean dagoen araudiaren arabera.

3) Esleipendunak konpromisoa hartzen du fakturazio-datuak edo kontsumoak Udalak erabakitzen duen pertsonaren esku jartzeko, euskarri informatikoan.

4) Esleipendunak bere gain hartzen du prezioari (araututako terminoei) eragiten dioten arau-aldaketak Udalari jakinarazteko betebeharra, aldaketa horiek jasotzen dituen lehenengo faktu-ran. Prezio berriak ezarriko ditu, eta aldaketa horiek justifikatzen dituzten arau-agiriak jakinaraziko dizkio.

5) Esleipendunak hilero bidaliko ditu:

- Informazio-faktura bat (zenbatu ezina), mugaeguneratutako aldian egindako horniduraren hiru kontratuen zenbatekoa batuz. Informazio-faktura hori honela banakatuko da, enpresa esleipendunak datu adieraziak dituen heinean:
    - Sarbide-tarifari edo potentzia-epeari dagokion guztizko zenbatekoa, gehiegizko potentziagatik errekargua banakatuta, halakorik balego.
    - Energiaren guztizko zenbatekoa.
    - Energia erreaktiboaren zenbateko osoa, halakorik balego.
    - Neurketa-ekipoen alokairuaren zenbateko osoa.
    - Elektrizitatearen gaineko zergari dagokion zenbatekoa.
    - BEZaren zenbateko osoa.
    - Araututako termino guztien fakturazioaren xehetasuna: sareetarako sarbidea, ahalmenaren araberako ordainketak, eraldaketagatik galerak, sistemaren operadoreari eta merkatuko operadoreari ordaintzea, etab.

- Hornidurei buruzko informazioa

Esleipendunak Administrazioak izendatzen dituen pertsonen eskura jarriko du hilean behin, Internet bidez edo posta elektronikoz, kontsumo-erregistroei buruzko informazioa, kasu bakoitzean neurketa-ekipoek ahalbidetzen duten ahalik eta xehetasun handienarekin, gastua, osoa eta tarifa-aldika (eurotan), energia erreaktiboaren gehiegizko kontsumoak eragindako gehiegizko potentzia, gastu osoa eta tarifa-aldiak (eurotan) direla eta, eta kontratuari lotutako horniduraputu bakoitzaren kontratazio-parametroak, kalkulu-orriaren edo antzeko formatu batean.

6) Enpresa esleipendunak enpresa banatzailearen aurrean kudeatuko ditu Udalak agindutako aldi baterako konexioak, kontratazio-eskaeraren fasetik martxan jarri arte, eta eskaintzan zehaztuko ditu udalaren konexio-eskaeratik martxan jarri arteko erantzun-denborak.

OIARTZUNGO UDALA

5. ESLEITZEKO PROZEDURAK ETA IRIZPIDEAK

Energia elektrikoaren hornidurari dagokionez, I. Lotea, hainbat irizpide hartuko dira esleipenerako oinarritzat. Gas naturalaren hornidurari dagokionez, II. Lotea, irizpide bakarra hartuko da esleipenerako oinarritzat.

1. **I. LOTEA** (energia elektrikoaren hornidura) ESLEITZEKO IRIZPIDEAK:

A) BALIO-IRITZIEN BIDEZKO BALORAZIO-IRIZPIDEAK (45 PUNTU):

Honako alderdi hauek ebaluatuko dira:

1.1) Asistentzia. Bezeroarentzako arreta, epeak eta baldintzak. **8 puntu**

- Konpainia merkaturatzaileen aldetik jasotako laguntza, hainbat puntutan, hala nola gorabeheretan, fakturazioan eta hornidura berrien altetan (behin-behinekoak eta/edo behin betikoak).
  Puntu honetan, kudeaketa horiek egiteko euskarria eta arintasuna baloratzen dira. Ezinbestekotzat jotzen da konfiantzazko koordinatzaile edo kontaktu bat izatea, Udaletik hurbil egongo dena eta gai horietan euskaraz zein gaztelaniaz lagunduko duena, kudeaketak bizkortasunez eta Udalak zehaztutako epeetan egin ahal izateko.

1.2) Asistentzia. Informazioa eta bilerak. **8 puntu**

- Fakturazioari, kontsumoei, horniduraren kalitatearen inguruko erreklamazioei eta abarri buruzko informazioa emateko plana.
- Bilera-plana.

1.3) Tarifak/potentziak eta erreaktibo bidezko hornidura aldizka berrikustea. **8 puntu**

Enpresa lizitatzaileek aldizkako berrikuspen-plan bat aurkeztu beharko dute. Plan horretan oinarrituta, kontratuak irauten duen bitartean berrikuspen bat egingo da, horniduren potentziak optimizatzeko eta energia erreaktiboa konpentsatzeko. Berrikuspenaren aldizkakotasuna zehaztu behar da.

Kontsumoak aldian-aldian aztertzea baloratuko da, une oro optimizatuta egon daitezen.

1.4) Kontratuen aldaketari buruzko informazioa. **8 puntu**

Potentzia-kontratuak aldatzeko eta egokitzeko prozesuari eta energia erreaktiboaren konpentsazioari buruzko informazio-protokoloa, egutegi xehatua aurkeztuta.

1.5) Prestakuntza eta kontzientziazio-kanpainak. **8 puntu**

Alde horretatik, enpresa eskaintzaileek "Langile tekniko eta instituzionalentzako prestakuntza-programa" bat aurkez dezatela eskatzen da, eraginkortasunari, faktura elektrikoaren ulermenari eta abarri dagokienez.

Garrantzitsua izango da prestakuntza-ekintzaren/ekintzen, gaien, egutegiaren eta prestutasunaren planteamendu zehatza aurkeztea, Udalak egindako eskaera espezifikoetara egokitzeko.

Prezioan sartuta dauden prestakuntza-ekintzak bakarrik baloratuko dira (ez dira kontuan hartuko Udalari gainkostua dakarkiotenak). Balorazioan, prestakuntza-proposamenaren xehetasun-maila eta irismena hartuko dira kontuan.

Puntu honetan, OIARTZUNgo ikastetxe publikoetan edo ikastetxeetan prestakuntza-ekintzak merkaturatzen dituzten konpainiek egindako ekarpena baloratuko da.

1.6) Hobetzeko proposamenak. **5 puntu.**

Energia berriztagarriak ezartzeko azterlanak eta/edo energia aurrezteko beste proposamen batzuk egiteko konpromisoa baloratuko da.

B) BALORAZIO AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEAK (55 PUNTU)

Merkaturatzailearen "**kudeaketa-kostua**" €/ MWh bakoitzeko baloratuko da, 55 puntura arte, formula honen arabera:

Formula: Cx = 55* (Cmin/X)

Non:
- Cx = Eskaintza bakoitzaren puntuazioa eskainitako kostu-prezioarentzat
- Cmin = eskainitako gutxieneko kostua
- X = eskaintza bakoitzaren prezioa.

Emaitza 4 hamartarretara biribilduko da.

2. **II. LOTEA** ESLEITZEKO IRIZPIDEAK (gas naturalaren hornidura):

Proposamenak baloratzeko eta eskaintzarik onena zehazteko, **balorazio automatikoko esleipen-irizpide bakarra hartuko da kontuan**, hau da, **prezioa**.

Lizitatzaileek **gas termino finkoa** eta **gas energia terminoa** finkatuz aurkeztuko dute beren eskaintza. Lehenengoa, termino finkoa, euro/hilean zehaztuta, eta bigarrena, termino aldakorra, euro/kWh-tan.

Eskaintzarik onena GUZTIZKO FINKOA eta GUZTIZKO ALDAKORRA atalean prezio baxuena lortzen duena izango da, eta ondorengo taularen balorazioa emango da, hau da, Elorsoro kiroldegiaren horniduran Oiartzungo Udalarentzat kostu txikiena duena:

KONTZEPTUA	PUNTUAZIOA
TERMINO ALDAKORRA. Eskaintza hoberentzat joko da guztizko prezio aldakor txikiena lortzen duena euro/kWh-tan.	95
TERMINO FINKOA GUZTIRA: Eskaintza onena izango da euro/hilean preziorik txikiena lortzen duena.	5

Termino aldagarriari 95 puntu emango zaizkio gehienez, merkaturatzailearen euro/kWh-ko termino aldakorraren kostua kontuan hartuta, formula honen arabera:

OIARTZUNGO
UDALA

Formula: Cx = 95* (Cmin/X)

Non:
- Cx = Eskaintza bakoitzaren puntuazioa eskainitako kostu-prezioarentzat
- Cmin = eskainitako gutxieneko kostua
- X = eskaintza bakoitzaren prezioa.

Emaitza 6 hamartarretara biribilduko da.

Termino finkoagatik 5 puntu emango dira gehienez, merkaturatzailearen euro/hilean termino finkoaren kostua kontuan hartuta, formula honen arabera:

Formula: Cx = 5* (Cmin/X)

Non:
- Cx = Eskaintza bakoitzaren puntuazioa eskainitako kostu-prezioarentzat
- Cmin = eskainitako gutxieneko kostua.
- X = eskaintza bakoitzaren prezioa.

Emaitza 6 hamartarretara biribilduko da.